



## HEZKUNTZA SAILA

Unibertsitate eta Ikerketa  
Sailburuordetza  
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko  
Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de  
Universidades e Investigación  
Dirección de Política y Coordinación  
Universitaria

**EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 2koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2023-2024 ikasturterako unibertsitateko Ikasiker lankidetzak beka eskaeren ebazpena ematen du (B modalitatea).**

Hezkuntza sailburuak, 2023ko ekainaren 20ko aginduaren bitartez (ekainaren 29ko EHAAn argitaratua), unibertsitateko ikasleentzako Ikasiker lankidetzak beken deialdia egiten zuen 2023-2024 ikasturterako. Aginduaren oinarrien 2.2 artikulua beken B modalitatea jasotzen du: lankidetzak garatuko da udan, 2024ko ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean.

Agindu horren 15.2 artikulua ezartzen duenez, A eta B modalitateen ebazpenak lau zerrenda izango ditu: eskabide esleipendunak, ez-esleipendunak, beka eskuratzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten arren, beka lortzeko ordena-zenbakia lortu ez duten eskabideen zerrenda (erreserbak) eta eskaeren zerrenda, lankidetzak-proiektua egiteko eskatzaileak hautatutako ikertaldean edo ikerketa-zentroen arabera ordenatuta.

Hautaketa-batzordeak, 2024ko urtarrilaren 2an, Ikasiker lankidetzak beken B modalitatean aurkeztutako eskaeren behin betiko ebazpen proposamena aurkeztu dio Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariari.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

### EBAZTEN DUT

**Lehenengoa.-** Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei eta beka lortzeko behar den ordena zenbakia dutenei beka ematea, zenbatekoa: 30.000 euro, B Modalitatean (I. Eranskina).

**Bigarrena.-** Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskatzaileei beka ukatzea, B Modalitatean (II. Eranskina)

**Hirugarrena.-** Deialdi honetako beka eskuratzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten arren, beka lortzeko ordena-zenbakia lortu ez duten eskabideen zerrenda argitaratzea (III. Eranskina). Zerrenda horrekin erreserben zerrenda bat eratuko da; zerrenda hori baliatuko da uko-egiteren batengatik beken bat libre geratzen bada beka hori emateko.

**Laugarrena.-** Ikertaldean edo ikerketa-zentroen arabera ordenatutako zerrenda, eskaera adjudikaziodunak, ukatuak eta erreserbak jasotzen dituen argitaratzea (IV. Eranskina).



**Bostgarrena.-** Ebazpen honen kontra, gorako errekurtoa jarri ahal izango du interesatuak, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeari zuzenduta eta hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan.

Miren Artaraz Miñón

**UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KOORDINAZIOKO ZUZENDARIA**